ADARRA

Pedagogi Erakundea
www.adarra.org

KOLORE GUZTIETAKO IPUINAK

Ijitoekin Irakasleak
adarrareakundea@gmail.com

CUENTOS DE TODOS LOS COLORES

KOLORE GUZTIETAKO IPUIÑAK

AURKEZPENA

Enseñantes con gitanos elkartean, eskola ikasle ijitoentzat egokitu dadin alternatibak bilatzeko eta martxan jartzeko gogoeta egin dugu, eta horretan badugu esperientzia. Hori dela-eta, eta eskola-esparruan zenbait diskriminazio-formaren aurka borrokatu ondoren, argi eta garbi dugu gaur egungo egoera gainditzeko ezinbestekoa dugula ijito-kultura gure gizartea osatzen duten kulturetako bat dela aintzat hartzea (gure gizartea multikulturala baita, duela zenbait mendetatik), bai eta KULTUREN ARTEKO HEZKUNTZA hezkuntza-jarduera ororen printzipiotzat hartzea ere.

Hezkuntzan jardutean, geure gizarteko kultura guztiak elkar ulertzea, ezagutzea eta errespetatzea sustatu behar dugu, hori baita bide bakarra bizikidetza hobetzeko (geure inguruan gero eta handiagoak diren arrazakeria eta xenofobiari aurka eginez), aniztasunak dakarkigun aberastasuna balioesteko, eta neska-mutil guztiek eskolaren parte direla sentitzeko, bai eta nork bere ezberdintasunei uko egin gabe berdinak direla sentitzeko ere.

Horregatik, Enseñantes con Gitanos-eko zenbait elkartetakook “KOLORE GUZTIETAKO IPUINAK” izeneko jarduerari ekin genion. Jarduera hori Bartzelonan garaturiko jatorrizko ideia baten egokitzapena da, hain zuzen, eta Valentziako, Toledoko, Bizkaiko eta beste leku batzuetako ikastetxe batzuetan gauzatu dugu.

Zertan datza jarduera hori? Funtsean, ordu eta erdi inguruko saioetan, zenbait kulturatako ipuinak ahoz kontatzen dituzte kultura horietako kontalariek.

Era horretan, ipuinetan, testu-mota unibertsalak diren aldetik beti egitura-elementu jakin batzuk ageri badira ere, entzuleek kultura bakoitzeko zenbait ezaugarri berezi hautematen dituzte, bai kontalariei dagokienez, bai edukiei dagokienez.

LORTU NAHI DIREN HELBURUAK

Proiektu honetan jorratu nahi ditugun helburuak honako hauek dira:

a) Gure inguruko kultur aniztasuna aberastasun kolektibotzat balioestea.

b) Gure gizarteko kultura guztiak berdintzat jotzea, bai eta ezberdintasunen adierazpen positibo eta aberasgarritzat ere.

c) Kontakizunak entzunez atsegin hartzea, eta neska-mutilak ikertzera eta/edo familia-testuinguruan ipuinak biltzera animatzea.

d) Ipuinetan adierazten diren zenbait kultur elementu hautematea.

e) Aldeak alde, kultura guztietan adierazten diren elementuei buruz gogoeta egitea.

Ikastetxean, auzoan edo herrian dauden kulturetako ipuinak entzuteko saioa egin aurretik, zenbait jarduera egiten dira neska-mutilekin, haiengan esperientzia horri ahalik eta etekin gehiena ateratzeko gogoa suspertzeko.

Irudimen- eta sormen-ariketak dira, taldean eta parte hartuz egitekoak.

Ipuin-kontalariak hautatzerakoan, ahal den neurrian, eskola-komunitatekoak izatea sustatzen da. Elkartea arduratzen da saioaren aurkezpenaz –ikus-entzunezko euskarriak erabiliz–, bai eta behar diren kulturetako kontalariak lortzeaz ere.

Saioaren ondoren, ikasleek zenbait jarduera egiten dituzte, saioan landutako helburuak finkatzeko.

Horretarako, talde antolatzaile bakoitzak **txosten** bat prestatu du, honako hauek dituena:

* Proiektuaren aurkezpena eta justifikazioa.
* Aurkezten diren helburuak.
* Proposamena martxan jartzeko modua.
* Emanaldiaren aurretiko jarduerak.
* Ipuinen narrazioa (jasotako ipuin guztien testua erantsita).
* Emanaldiaren ondoko jarduerak.
* Bibliografia.

Ipuinak kontatzen dira:

- Bat euskaldunena (Euskal Herriko jatorrizko kultura delako) eta beste bat ijitoena (Euskal Herrian bizi diren gutxiengoetatik kide gehien dituena delako, eta bertan denbora gehien daramana delako –esaterako, Bizkaian–).

- Bat Estatuaren baitako kulturetako batena, eta beste bat Estatuaz kanpoko kulturetako batena (ikastetxean kide edo eragin gehien duen kulturarena).

"KOLORE GUZTIETAKO IPUINAK" jarduerarekin garatutakoaren ebaluazioa guztiz POSITIBOA da.

Kultura ezberdinetako ipuinak, batzuek eta besteek beretzat jotzen dituzten kulturetako ipuinak, entzuteari esker, proposaturiko helburuak guztiz lortu ahal izan dira, eta esan beharra dago eskolan oso-oso gutxitan gertatzen dela horrela bat egitea.

Gainera, besterik ez bada ere, neska-mutilen aurpegiak ikusteak –liluratuta kontakizun guzti-guztiak entzutean, eta emozioz beteta ere bai, beren kulturako ipuinaren txanda heltzean– merezi du eginiko ahalegina, eta agerian uzten du jarduera hori gure ikastetxeetan eguneroko gauza bihurtzeko beharra dagoela.

OHARRA:

- **DBHko ikasleekin egitean, KOLORE GUZTIETAKO NARRAZIOAK/ISTORIOAK esaten zaio jarduerari.**
- **Jarduera Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloko ikasleentzat antolatu nahi bada, aste batean zehar egiteko programatu behar da: egunean ipuin bat kontatuko da, eta, jarduerari jarraitutasuna ematearren, pertsona berak jardungo du aurkezle-lanetan.**